

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 4164

*AGINDUA, 2022ko irailaren 22koa, Hezkuntza sailburuarena, Hezkuntzako Ikuskaritzako ikuskatzaile nagusiaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.*

Urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak, Hezkuntzako Ikuskaritzako ikuskatzaile nagusiaren lanpostua ezarri zuen. Lanpostu horren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 11. artikuluan daude jasota.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 10.2 artikulua xedatzen duenez, Hezkuntzako Ikuskari Nagusia zuzenean Hezkuntza Sailburuordetzaren mende egongo da, eta haren titularra Hezkuntza-arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuko du, Hezkuntza Sailburuordetzak proposatuta, izendapen askeko prozeduraren bidez.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47. eta 48. artikuluetan eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abuztuaren 18ko Aginduan (2022ko abuztuaren 29ko EHAA), Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusiaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duenean, xedatutakoaren arabera, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Francisco Javier Balerdi Iraola jauna Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusi izendatzea.

Laugarrena.– Izendapen horrek 2022ko irailaren 22tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak, egun hori barne.

Bosgarrena.– Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.